

**UDAL JABARI PUBLIKOAREN
ERABILERA PRIBATIBO EDO
PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASAK
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

**ORDENANZA REGULADORA DE TASAS
POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL
APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL
DOMINIO PUBLICO LOCAL.**

I.- Xedapen orokorrak

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II Zergagaia

3. artikulua.-

Tasen zergapeko egitatea da udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.

Tasari lotuta geratzen dira, halaber, titulartasun pribatuko ondasun higiezinetan erabilera publiko orokorrerako egiten diren erabilera pribatiboak.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua.-

Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerek modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienez, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

I. Disposiciones generales

Artículo 1.-

Esta Entidad Local, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local especificados en el Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

Artículo 2.-

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.

II. Hecho imponible

Artículo 3.-

Constituye el hecho imponible de las tasas, la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

Quedan sujetas asimismo a la tasa, las utilizaciones privativas que se realicen en bienes inmuebles de titularidad privada destinados a uso público general.

III. Sujeto pasivo

Artículo 4.-

Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular, conforme a alguno de los supuestos previstos en el artículo 20.2 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

El Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

IV- Salbuespenak, murrizpenak eta hobariak

6. artikulua.-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V- Oinarri ezargarria

7. artikulua.-

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI - Kuota

8. artikulua.-

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztu aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kalteutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VII- Sortzapena eta zergaldia

9. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientearen ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari

Artículo 5.-

Las tasas se harán efectivas por aquellos a cuyo favor se otorguen las licencias correspondientes o, en su defecto, por quienes se benefician del aprovechamiento.

IV- Exenciones, reducciones y bonificaciones

Artículo 6.-

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

V- Base imponible

Artículo 7.-

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el Anexo.

VI- Cuota

Artículo 8.-

La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, la Entidad Local será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

La Entidad Local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

VII- Devengo y periodo impositivo

Artículo 9.-

La tasa por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengará, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el periodo impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial, en cuyo caso el periodo impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo en la

jarraituz.

Subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa, jarduera administratiboa edo herri jabaria erabili edo aprobetxatzeko eskubidea eman edo egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio.

VIII- Likidazioa eta ordainketa

10. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX- Tasen kudeaketa

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X- Amaierako xedapena

Udalbatzarrek 2024ko irailaren 27an egindako bilkuran onartu zuen Ordenantza hau aldatzeko erabakia eta ondorioak izango ditu 2025eko urtarrilaren 1etik eta hala jarraituko du harik eta Ordenantza aldatu edo indargabetu arte.

cuota, en los términos establecidos en el Anexo.

Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio público, la actividad administrativa o el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

VIII- Liquidación e ingreso

Artículo 10.-

Por la Entidad Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose en metálico la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

IX- Gestion de las tasas

Artículo 11.-

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

X- Disposición final

El acuerdo de modificación de ésta Ordenanza fue tomado por la Corporación en Pleno, el día 27 de septiembre de 2024 y tendrá efectos desde el 1 de enero de 2025 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su derogación o modificación.

ERASKINA	ANEXO
UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORU, LURPE EDO LURGAINAREN ERABILERA PRIBATUA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA, HORNIDURA ZERBITZUEN ENPRESA USTIATZAILEEN ALDEKOA.	UTILIZACION PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LAS VIAS PUBLICAS MUNICIPALES EN FAVOR DE EMPRESAS EXPLOTADORAS DE SERVICIOS DE SUMINISTRO
Udalaren herri-bideetan edo bide publikoen lurzoruan, lurrazpian edo hegalkinetan, interes orokorrekoak izan eta herriko jende orori edo jende gehienari eragiten dion hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzaileen alde eraturako erabilera pribaturako edo aprobetxamendu bereziarako tasa, enpresa horiek udalerrian urtero eskuratzen duten fakturaziotik sortutako diru-sarrera gordinen %1,5a izango da.	La tasa por las utilizaciones privativas o aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo o vuelo de las Vías Públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro que resulten de interés general o que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario, será el 1,5 % de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal dichas empresas.
Eraskina honetan jasotakoaren ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira".	A los efectos de lo establecido en este anexo se incluirán entre las empresas explotadoras de servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.
Telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi honetan sartuko.	No se incluirán en este régimen especial de cuantificación de la tasa los servicios de telefonía móvil.
Kuantifikaziorako erregimen berezi hau aplikagarria izango zaie aurretik erreparaturiko enpresei, bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak direnean, eta bai, horien titularrak ez izanik ere, sareak erabili, horietan sartu edo haiekin interkonektatzeko eskubideen jabe direnean.	Este régimen especial de cuantificación se aplicará a las empresas anteriormente indicadas, tanto si son titulares de las correspondientes redes a través de las cuales se efectúan los suministros como si, no siendo titulares de dichas redes, lo son de derechos de uso, acceso o interconexión a las mismas.
Ordenantza honetan xedatutakoaren ondoriatarako, fakturaziotik eratorritako sarrera gordinak hauek direla joko da, alegia, entitate bakoitzari egozgarriak izanik, entitateak udalerrri bakoitzean egindako zerbitzuengatik kontraprestazio gisa lortutakoak.	A efectos de lo dispuesto en esta Ordenanza se entenderá por ingresos brutos procedentes de la facturación aquellos que, siendo imputables a cada entidad, hayan sido obtenidos por la misma como contraprestación por los servicios prestados en cada término municipal.
Ondorio hauetarako, egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak ez dira sarrera gordinen artean sartuko, ezta ere hirugarren batzuen kontura kobratutako partida edo kopuruak tasa kuantifikatzeko erregimen berezi hau aplikagarri duen entitatearen berezko sarrerak ez badira.	No se incluirán entre los ingresos brutos, a estos efectos, los impuestos indirectos que graven los servicios prestados ni las partidas o cantidades cobradas por cuenta de terceros que no constituyan un ingreso propio de la entidad a la que se aplique este régimen especial de cuantificación de la tasa.
Hornidurak egitean inoren sareak erabiltzen dituzten enpresek kopuru hauek kenduko dituzte beren fakturazioaren sarrera gordinetatik, hain zuzen, sare horietara sartzeagatik edo haiekin interkonektatzeagatik beste enpresei ordaindutako kopuruak. Sare horien enpresa titularrek beren fakturazioaren sarrera gordinen artean konputatu beharko dituzte kontzeptu horregatik jasotako kopuruak.	Las empresas que empleen redes ajenas para efectuar los suministros deducirán de sus ingresos brutos de facturación las cantidades satisfechas a otras empresas en concepto de acceso o interconexión a las redes de las mismas. Las empresas titulares de tales redes deberán computar las cantidades percibidas por tal concepto entre sus ingresos brutos de facturación.
Erregimen berezi hau aplikatuz ateratzen den zenbatekoa ezingo zaie ordenantza honetan aipatzen diren hornidura zerbitzuen erabiltzaileei jasanarazi.	El importe derivado de éste régimen especial no podrá ser repercutido a los usuarios de los servicios de suministro a que se refiere esta ordenanza.
Ordenantza honetan arautzen diren tasak bateragarriak dira udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduera egiteagatik finkatu daitezkeen bestelako taseekin, baldin eta letra honetan aipatzen diren enpresak haien subjektu pasibo badira 4/2003 foru arauaren 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Alabaina, udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran eraturako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezitik erator litezkeen bestelako tasen ordainarazpena ez da tasa hauen ordainketarekin bateragarria izango.	La tasa regulada en esta ordenanza es compatible con otras tasas que puedan establecerse por la prestación de servicios o la realización de actividades de competencia municipal, de las que las que las empresas a que se refiere esta ordenanza deban ser sujetos pasivo conforme a lo establecido en el artículo 23.1.b) de la Norma Foral 4//2003, de 19 de marzo, de Reforma del Sistema de Tributación Local, quedando excluida, por el pago de esta tasa, la exacción de otras tasas derivadas de la utilización privativa o el aprovechamiento especial constituido en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales.

Tarifa aplikatzeko arauak:

- Tasaren kitapena hiruhilabete naturalaren amaieran egingo da.

- Hiruhilabete naturala amaitu ondoren hurrengo 30 egun naturalen barruan, enpresek udal barrutain egindako hornidurengatik lortutako sarreraren aitorpena egingo dute, aurreko hiruhilabetearen lortutako sarrera gordinak zehazki azalduz.

- Aipatu aitorpenarekin batera, enpresaren kontabilitateko laburpena eta kasu bakoitzean Udal Administrazioak eskatuko dituen agiriak aurkeztu beharko dira.

- Udal Administrazioak Tasa honen zehazketa edo behin behineko kobraketa egingo du, hori egin ondoren 4 urtetan ordaindu beharreko zenbatekoa zuzendu ahal izango delarik eta, epe hori iraganik, kasu bada, behin betikotzat joko da.

Normas de aplicación de esta tarifa:

- La liquidación de la tasa se efectuará por trimestres naturales vencidos.

- Las empresas presentarán dentro de los 30 días naturales siguientes al vencimiento del trimestre natural declaración por los ingresos obtenidos por suministros efectuados dentro del término municipal con detalle de los ingresos brutos obtenidos en el trimestre inmediatamente anterior.

- Dicha declaración habrá de acompañarse de un extracto de la contabilidad de la empresa y de la documentación que en cada caso solicite la Administración Municipal.

- La Administración Municipal procederá a la determinación o cobro provisional de esta Tasa, pudiendo rectificar la cantidad a satisfacer dentro del plazo de 4 años de haberse practicado la misma, transcurrido se entenderá, en su caso, elevada a definitiva.

IBILGAILUAK ESPALOIETATIK FINKEN BARRUKALDERA SARTZEKO PREZIOA ETA KALEETAN APARKALEKUA GORDETZEAGATIKOA.

ENTRADA DE VEHICULOS EN EL INTERIOR DE FINCAS A TRAVES DE LAS ACERAS Y RESERVA DE APARCAMIENTO DE LOS MISMOS EN LA VIA PUBLICA

1. Erabilpen pribaturako erreserba, urtean	36,23 €/ m.l.
2. Geratze eta aparkatze debekatua, urtean	29,87 €/ m.l.
3. Ordutegi jakin bat dutenak, beti ere 12 ordukoak baino gutxiagokoak badira.	24,93 € / m.l.

1. Reserva para uso privativo, al año	36,23 € / m.l.
2. Prohibición de estacionamiento y aparcamiento, al año	29,87 € / m.l.
3. Concesiones sujetas a horario, siempre que el horario sea inferior a 12 horas.	24,93 € / m.l.

Arauk:

- 1.- Tarifa honen kontura eskatuko diren zenbatekoak, eskatu edo egingo den aprobetxamendu bakoitzeko kitatuko dira; hiru hilabetero ordaindu behar dira.
- 2.- Aprobetxamenduaren bajak ematerakoan, hiru hilabeteo zenbateko hori hilabete osoko hainbanatuko da; udalari bajaren berri eman zaion hilabetea barne.
3. Altak ematerakoan, hiru hilabeteo zenbateko hori hilabete osoko hainbanatuko da; udalari bajaren berri eman zaion hilabetea barne.

Normas de aplicación

- 1.- Las cantidades exigibles con arreglo a esta tarifa se liquidarán por cada aprovechamiento solicitado o realizado y se exigirán por año completo
- 2.- En los casos de baja del aprovechamiento el importe anual se prorrateará por meses completos, incluido aquél en el que la baja sea comunicada al Ayuntamiento
- 3.- En los casos de alta en el aprovechamiento el importe anual se prorrateará por meses completos, incluido aquél en el que el nuevo aprovechamiento sea autorizado por el Ayuntamiento

HERRI ERABILERAKO LURZORUAK MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN, SALGAIEKIN, SALTOKIEKIN, APARATU AUTOMATIKOEKIN, ERAIKUNTZA ELEMENTUEKIN ETA ANTZEKOEKIN OKUPATTZEA.

OCUPACION DE TERRENOS DE USO PÚBLICO MUNICIPAL CON MESAS Y SILLAS, PRODUCTOS EN VENTA, PUESTOS, APARATOS AUTOMÁTICOS, ELEMENTOS DE LA CONSTRUCCIÓN Y OTROS ANALOGOS.

1. Ostalaritzako establezimenduek aulkiak, mahaia, kupelak, eserlekuak, publizitate-elementuak, apaingarriak eta antzekoak jartzean egiten duten okupazioa. Okupazio-moduluagatik kobratuko da "M" bezala definituta okupazio motaren arabera:

- 1 mota. Mahai-modulu estandarra, 3 edo 4 aulkikoa, moduluaren (M) zenbatekoa ordainduko da.
- 2 mota. Modulu txikia: mahaia aulki 2rekin; mahaia altua; kupela; kupel erdi eta eserlekua. Modulu erdia ordainduko da (1/2 x M).

1. Ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas, bancos, elementos publicitarios, ornamentales y similares. Se cobrará por módulo de ocupación definido "M" según el tipo de ocupación:

- Tipo 1: modulo estándar de mesa con 4 o 3 sillas, se abonará el importe del módulo (M)
- Tipo 2: módulo pequeño de mesa con 2 sillas, mesa alta, barrica, media barrica y banco, se abonará el importe de 1/2 módulo (1/2xM)

• 3 mota. Modulu puntuala, publizitate-elementuak, apaingarriak eta antzekoak jartzeko (luzetara jarritz gero, luzetara hartzen dituzten metroekin edo zatikiekin biderkatuko da). Modulu laurdena ordainduko da (1/4xM).

• Tipo 3: módulo puntual de elementos publicitarios, ornamentales y similares (que, si tienen desarrollo lineal, se multiplicará por la longitud en metros o fracción) se abonará el importe de 1/4 módulo (1/4xM)

1.1 Okupazioa denboraldiko, martxoaren 15etik urriaren 15era arte, asteko egun guztietan:

1.1 Ocupación por temporada, desde el 15 de marzo al 15 de octubre (todos los días de la semana):

M moduluak:

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko	87,50 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko	70,43 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko	55,48 €

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, por temporada	87,50 €
- En calles de 2ª categoría, por temporada	70,43 €
- En calles de 3ª categoría, por temporada	55,48 €

1.2. Okupazioa denboraldiko, martxoaren 15etik urriaren 15era, asteburuetan eta jaiegunetan:

1.2. Ocupación por temporada, desde el 15 de marzo al 15 de octubre (durante fines de semana y festivos):

M moduluak:

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko	43,75 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko	35,21 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko	27,75 €

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, por temporada	43,75 €
- En calles de 2ª categoría, por temporada	35,21 €
- En calles de 3ª categoría, por temporada	27,75 €

1.3 Urte osoko okupazioa, aste guztirako:

1.3. Ocupación todo el año (todos los días de la semana)

M moduluak:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	149,39 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	119,51 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	93,90 €

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, al año	149,39 €
- En calles de 2ª categoría, al año	119,51 €
- En calles de 3ª categoría, al año	93,90 €

1.4. Urte osoko okupazioa, asteburuetan eta jaiegunetan:

1.4. Ocupación todo el año (durante fines de semana y festivos):

M moduluak:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	74,69 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	59,76 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	46,95 €

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, al año	74,69 €
- En calles de 2ª categoría, al año	59,76 €
- En calles de 3ª categoría, al año	46,95 €

1.5. TERRAZA FINKOAK ETA APARKATZEKO GUNEETAN. Urte osoko okupazio-moduluak, aste guztirako.

1.5. TERRAZAS ESTABLES Y EN ZONAS DE ESTACIONAMIENTO. El módulo de ocupación todo el año (todos los días de la semana)

M moduluak:

- 1. kategoriako kaleetan, urteko	253,96 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko	202,74 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko	160,06 €

El módulo M

- En calles de 1ª categoría, al año	253,96 €
- En calles de 2ª categoría, al año	202,74 €
- En calles de 3ª categoría, al año	160,06 €

1.6. Denboraldiko baimentzen diren terrazen okupazioagatik ordaindu beharreko tarifa desberdina bada hemen arautzen denarekiko, 6.4. artikuluan ezarritako metodologiarekin bat etorritik kalkulatu da

1.6. La tarifa por las ocupaciones de terrazas que se autoricen por temporada distinta a la aquí regulada se calculará conforme a la metodología establecida en el artículo 6.4.

2.- Merkataritza-establezimenduek hartzen duten lekua produktuak saltzeko, makina automatiko banatzaileak, jolas makinak, publizitate-elementuak, elementu apaingarriak eta horien antzekoak jartzeko.

2. Ocupación realizada por establecimientos comerciales con productos en venta, máquinas automáticas expendedoras, máquinas recreativas, elementos publicitarios, ornamentales y similares:

Okupatzen den m2 bakoitza:

- 1. kategoriako kaleak, urtean	43,92 €
- 2. kategoriako kaleak, urtean.	35,68 €
- 3. kategoriako kaleak, urtean.	27,46 €

El m2 o fracción de ocupación

- En calles de 1ª categoría, al año	43,92 €
- En calles de 2ª categoría, al año	35,68 €
- En calles de 3ª categoría, al año	27,46 €

3.- Bide publikoan bezeroei emandako zerbitzuekin lekua okupatzea, fatxadaren lerroan jarritako instalazioen bitartez: kutxazain automatikoak, produktu-banagailuak edo beste edozein instalazio mota (erakusleihoak eta antzekoak).		3. Ocupación por servicios prestados en la vía pública a clientes mediante instalaciones colocadas en línea de la fachada, como cajeros automáticos, dispensadores de productos y cualquier otro tipo de instalaciones, tales como mostradores y similares.	
Kutxazain automatikoak, modulua:		Cajeros automáticos, el módulo:	
- 1. kategoriako kaleak, urtean.	189,42 €	- En calles de 1ª categoría, al año	189,42 €
- 2. kategoriako kaleak, urtean.	116,11 €	- En calles de 2ª categoría, al año	116,11 €
- 3. kategoriako kaleak, urtean.	42,82 €	- En calles de 3ª categoría, al año	42,82 €
Gainerakoak, metro lineal edo okupazio-zatiki bakoitzeko:		Resto de modalidades, el ml o fracción de ocupación:	
- 1. kategoriako kaleak, urtean.	126,28 €	- En calles de 1ª categoría, al año	126,28 €
- 2. kategoriako kaleak, urtean.	77,41 €	- En calles de 2ª categoría, al año	77,41 €
- 3. kategoriako kaleak, urtean.	28,55 €	- En calles de 3ª categoría, al año	28,55 €
4.- Postuak, jaietako barrakak, txosnak, zine-filmaketak eta antzekoak.		4. Ocupación con puestos, atracciones de feria, Txoznas, rodajes cinematográficos y similares	
4.1. Okupazio horien esleipenerako erabiliko den ohiko sistema lehia-prozedura bidezkoa izango da. Beraz, ordaindu beharko den tasa, baldintza-orrietan ezarritako okupazio-kasu bakoitzari ezarriko zaiona izango da.		4.1 El sistema habitual de adjudicación de estas ocupaciones lo será mediante procedimientos de concurrencia competitiva, en los que la tasa a abonar será determinará en función de lo que, en cada supuesto de ocupación, se establezca en los respectivos pliegos	
4.2. Lehia bidez adjudikatuko ez diren okupazioei dagozkien tasak, ondoko hauek izango dira:		4.2 Las tasas que correspondan a ocupaciones que no se adjudiquen mediante procedimientos de concurrencia competitiva, serán las siguientes:	
4.2.1. Postu irekiak:		4.2.1. Puestos abiertos	
Metro lineal bakoitzeko eta egun bakoitzeko:		El ml o fracción por día de instalación	
- 1. kategoriako kaleetan	0,99 €	- En calles de 1ª categoría,	0,99 €
- 2. kategoriako kaleetan.	0,67 €	- En calles de 2ª categoría	0,67 €
- 3. kategoriako kaleetan.	0,33 €	- En calles de 3ª categoría	0,33 €
4.2.2. Txosnak, saltoki itxiak kamioi, furgoneta, atoi edo antzekoren batean; salgaiak edo zerbitzuak erakusteko, publizitatea egiteko eta/edo banatzeko autobusak, helburu komertzialekin; eremu mugatuak eta eremu publikoko beste edozein okupazio.		4.2.2 Txoznas, puestos de venta cerrados, en camión, furgoneta, remolque o similar; autobuses para muestra, publicidad y /o distribución de productos o servicios con fines comerciales; espacios acotados, y cualquier otra ocupaciones de la vía pública.	
m2 edo zatiki bakoitza instalazio egun bakoitzeko		El m2 o fracción por día de instalación	
- 1. kategoriako kaleetan.	2,44 €	- En calles de 1ª categoría	2,44 €
- 2. kategoriako kaleetan	1,65 €	- En calles de 2ª categoría	1,65 €
- 3. kategoriako kaleetan	0,79 €	- En calles de 3ª categoría	0,79 €
4.2.3. Saltoki gabeko kale-salmenta (globoak eta antzekoak saltzea), eguneko:	10,67 €	4.2.3 Venta ambulante sin puesto (venta de globos y similares), al día	10,67 €
4.3. Epigrafe honetako tarifen aplikazio-arauak.		4.3 Normas de aplicación de las tarifas en este epígrafe	
Ez dute tasarik ordaindu beharrik izango:		Están exentos del pago de la tasa:	
- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak, Estatuak, Eibarko Udalak eta horien menpe dauden erakundeek. - Diru irabazi asmorik ez duten elkarteek eta erakundeek, Herriaren Intereseko Elkarteak Erregistroan inskribatutakoak. - Diru irabazi asmorik ez duten elkarteek eta erakundeek, onura publikokotzat deklaraturakotakoak. - Alderdi politikoak eta sindikatuek. - Herriko ikastetxeek. - Diru irabazi asmorik ez duten gainerako elkarteek eta		- La Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Estado, el ayuntamiento de Eibar y las entidades de ellos dependientes - Las Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro inscritas en el Registro de Asociaciones de Interés Municipal - Las Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro declaradas de utilidad pública - Los partidos políticos y sindicatos - Centros escolares de la localidad - El resto de asociaciones y entidades sin ánimo de lucro,	

erakundeek, betiere baimendutako instalazioko postuan produkturik edo zerbitzurik saltzen ez bada.		siempre que no exista venta de productos o servicios en el puesto cuya instalación se autoriza	
COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioa dela-eta, 2020. urtean % 100eko aparteko hobaria onartu zen ostalaritza-establezimenduek mahai, aulki, upel eta antzekoen bidez egindako okupazioari dagokion tasaren zenbatekoan.		Con motivo de la crisis sociosanitaria provocada por el Covid-19, durante el año 2020 se aprobó una bonificación extraordinaria del 100% sobre el importe de la tasa correspondiente a la ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas y similares.	
Halaber, COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioa dela-eta, 2021. urtean % 100eko aparteko hobaria onartu zen ostalaritza-establezimenduek mahai, aulki, upel eta antzekoen bidez egindako okupazioari dagokion tasaren zenbatekoan.		Asimismo, con motivo de la crisis sociosanitaria provocada por el Covid-19, durante el año 2021 se aprobó una bonificación extraordinaria del 100% sobre el importe de la tasa correspondiente a la ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas y similares.	
Halaber, COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioa dela-eta, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko martxoaren 15era arte, biak barne, % 100eko aparteko hobaria aplikatuko da ostalaritza-establezimenduek mahai, aulki, upel eta antzekoekin egindako okupazioari dagokion tasaren zenbatekoan.		Igualmente, con motivo de la crisis sociosanitaria provocada por el Covid-19, desde el 1 de enero de 2022 hasta el 15 de marzo de 2022, ambos inclusive, se aplicará una bonificación extraordinaria del 100% sobre el importe de la tasa correspondiente a la ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas y similares.	
5. Bide publikoaren okupazioa: obra-kontainerrak; aldamioak; garabiak; kaxetak eta eraikuntzako beste elementu lagungarri batzuk.		5. Ocupacion de la via publica con contenedores de obras, andamios, gruas, casetas y otros elementos auxiliares de la construccion.	
5.1. Edukiontzia eta horrekin pareka daitezkeenak (edukiontzia-ibilgailuak; ibilgailu jasotzaileak; auto-garabiak...), okupazio-egun bakoitzeko.	5,34 €	5.1 Contenedores y asimilados (vehículos contenedores, vehículos elevadores, autogrúas, etc), por día de ocupación.	5,34 €
5.2. Garabiak, kaxetak, deposituak eta eraikuntzako beste elementu lagungarri batzuk, m ² bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko:	0,32 €	5.2 Grúas, casetas, depósitos y otros elementos auxiliares de construcción, por m ² ocupado y día de ocupación:	0,32 €
5.3 Aldamioak, metro lineal bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko:	0,27 €	5.3 Andamios por metro lineal y día de ocupación:	0,27 €
5.4. Modulu bateko babes-aldamioak, aldamio bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko:	0,85 €	5.4. Andamios de protección de un módulo por unidad y día de ocupación:	0,85 €
5.5. Jasogailuak edo karga-jasogailuak; unitate bakoitzeko eta okupazio-egun bakoitzeko:	1,28 €	5.5 Elevadores o montacargas por unidad y día de ocupación:	1,28 €
6. Aplikazio-arauak:		6. Normas de aplicación	
6.1 Tasa honegatik eska daitezkeen zenbatekoak, egindako aprobetxamendu bakoitzagatik likidatuko dira.		6.1 Las cantidades exigibles con arreglo a esta tasa se liquidarán por cada aprovechamiento realizado.	
6.2. Aprobetxamenduari baja ematen bazaio baimendutako okupazio-aldia amaitu baino lehen, erabili ez den aldiari dagokion kuota ondoko atal hauen arabera itzuliko da:		6.2. En el caso de baja del aprovechamiento con anterioridad a la finalización del período de ocupación autorizado, se devolverá la cuota por el período no utilizado de acuerdo a lo siguiente :	
- Itzuliko den kuota egun osoen arabera hainbanatuko da, Udalari baja jakinarazten zaionetik zenbatuta. - Ostalaritza-establezimenduek terrazekin egiten duten urte osorako okupazioaren kasuan, itzuliko den kuota hiruhileko osoetan hainbanatuko da Udalari baja jakinarazten zaionetik zenbatuta. Beraz, ez da itzuliko baja eskatu den hiruhileko horri dagokion kuota.		- En general la cuota a devolver se prorrateará por días completos contados desde la comunicación de la baja al Ayuntamiento. - En el caso de la ocupación con terrazas realizada durante todo el año por establecimientos hosteleros, la cuota a devolver se prorrateará por trimestres completos contados desde la comunicación de la baja al Ayuntamiento, de manera que no se devolverá la cuota correspondiente al trimestre en el que se hubiera solicitado la baja.	
6.3. Aprobetxamenduari alta emateko orduan, urte horri dagokion kuotaren kalkulua ondoko atal hauen arabera egingo da:		6.3. En los casos de alta del aprovechamiento, el cálculo de la cuota correspondiente a ese año se realizará de acuerdo a lo siguiente:	

- Kuota egun osoen arabera hainbanatuko da, Udalak lizentzia eman duen egunetik zenbatuta.
- Ostalaritza-establezimenduek terrazekin egiten duten urte osorako okupazioaren kasuan, kuota era honetan hainbanatuko da: hiru hileko osoetan; beraz, Udalak lizentzia eman duen datari dagokion hiru hileko osoa eta hurrengoak kobratuko dira
- En general la cuota se prorrateará por días completos contados desde la concesión de licencia por el Ayuntamiento.
- En el caso de la ocupación con terrazas realizada durante todo el año por establecimientos hosteleros, la cuota se prorrateará: por trimestres completos, de manera que se cobrará el trimestre completo correspondiente a la fecha de la concesión de licencia por el Ayuntamiento, y los siguientes.

6.4.- Ondorio horietarako, hiru hileko hauei dagokien urteko kuotaren zati proportzionala aplikatuko da: urtarrila-martxoa; apirila-ekaina; uztaila-iraila eta urria-abendua.

6.4.- A los efectos anteriores, se aplicará la parte proporcional de la cuota anual correspondiente a los siguientes trimestres: enero-marzo, abril-junio, julio-septiembre y octubre-diciembre.

6.5. Ostalaritza-establezimenduen okupazioari dagokionean (mahaia eta aulkiak, kupelak, bankuak, publizitateko elementuak, elementu apaingarriak eta antzekoak), jaiegunetan eta asteburuetan oinezkoentzakoak izaten diren kale horietan baino ez da utziko astean zehar jarritako mahaia baino mahaia gehiago jartzen.

6.5. En la ocupación realizada por establecimientos hosteleros mediante mesas y sillas, barricas, bancos, elementos publicitarios, ornamentales y similares, sólo se permite diferente número de mesas entre semana y fin de semana en calles que se peatonalicen el fin de semana.

KALEETAKO KIOSKOAK	QUIOSCOS EN LA VIA PUBLICA
--------------------	----------------------------

1. Kiosko bakoitzak (kokapena zein dela ere), egunkariak, aldizkariak eta antzekoak saltzen dituenak, baita beste artikulua batzuk ere, hiru hilabetean

71,32 €

1. Cada uno de los quioscos, ubicados en cualquier emplazamiento, dedicado a la venta de periódicos, revistas y similares, así como de otros artículos, al trimestre

71,32 €

Arauk:

Normas de aplicación

- 1.- Tarifa honen arabera exigi daitezkeen tarifak hiru hilabeteko kitatuko dira, eskatu edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko.
- 2.- Aprobetxamenduaren baja emanez gero, ordaindu beharreko kuota hilabetekoa hainbanatuko da, bajaren jakinarazpena udalari jakin arazi zaion hilabetea edo aprobetxamenduaren iraungipeneko sartuta.
- 3.- Aprobetxamenduaren alta emanez gero, hiru hilabeteko ordaindu beharreko kuota hilabetekoa hainbanatuko da, udalak okupazio berria egiteko baimena eman dueneko sartuta.

- 1.- Las cantidades exigibles con arreglo a esta Tarifa se liquidarán por cada aprovechamiento solicitado o realizado y se exigirán por trimestres naturales.
- 2.- En los casos de baja del aprovechamiento el importe trimestral se prorrateará por meses completos, incluido aquél en que la baja sea comunicada al Ayuntamiento o tuviera lugar la caducidad del aprovechamiento
- 3.- En los casos de alta del kiosko el importe trimestral se prorrateará por meses completos, incluido aquél en que la nueva ocupación sea autorizada por el Ayuntamiento

SALTOKIAN KALEAN JARTZEA	INSTALACION DE MERCADILLOS
--------------------------	----------------------------

ASTEAZKENETAKO AZOKAK

MERCADILLOS SEMANALES

Okupazioa erdialdean, metro lineal bakoitza hiru hileko.

42,20 €

- Ocupación en zona centro, por metro lineal al trimestre

42,20 €

- Okupazioa Urkizun, metro lineal bakoitza hiru hileko.

31,91 €

- Ocupación en Urkizu, por metro lineal al trimestre

31,91 €

Arauk:

Normas de aplicación:

- 1.- Tarifa honen arabera eska daitezkeen tarifak hiru hilabeteko kitatuko dira, eskatu edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko.
- 2.- Aprobetxamenduaren baja emanez gero, hiru hilabeteko ordaindu behar den zenbatekoa hilabete osoko hainbanatuko da, bajaren jakinarazpena Udalari jakin arazi zaion hilabetea edo lizentziaren iraungipeneko sartuta.
- 3.- Aprobetxamenduaren alta emanez gero, hiru hilabeteko ordaindu beharreko zenbatekoa hilabete osoko hainbanatuko da, Udalak okupazio berria egiteko baimena eman dueneko barne.

- 1º: Las cantidades exigibles con arreglo a esta tarifa se liquidarán por cada aprovechamiento solicitado o realizado y se exigirán por trimestres naturales
- 2º: En los casos de baja del aprovechamiento el importe trimestral se prorrateará por meses completos, incluido aquél en el que la baja sea comunicada al Ayuntamiento o tuviera lugar la caducidad de la licencia
- 3º: En los casos de alta del aprovechamiento el importe trimestral se prorrateará por meses completos, incluido aquél en que la nueva ocupación sea autorizada por el Ayuntamiento

OINARRI-ESTAZIOAK JARTZEKO HERRI-JABARIKO ONDASUNAREN OKUPAZIOA		OCUPACION DE BIENES DE DOMINIO PÚBLICO PARA LA INSTALACION DE BASES DE TELEFONIA MOVIL	
- Antena edo masta bakoitzeko, higiezina hiri-lurrean edo lurzoru urbanizagarrian kokatzen bada, urtean.	10.243,58€	- Por antena o mástil, cuando el inmueble se sitúe en suelo urbano o urbanizable, al año.	10.243,58 €
- Antena edo masta bakoitzeko, higiezina lurzoru urbanizaezinean kokatzen bada, urtean.	5.121,79 €	- Por antena o mástil, cuando el inmueble se sitúe en suelo no urbanizable, al año.	5.121,79 €